



2024ko Ekintza Plana

Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta
Kontrolatzeko Plan Orokorra 2024-2027

2024ko urria

Edukia

1.Sarrera.....	3
2.Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorrarekin (2024-2027) lotutako 2024 Ekintza Plana	4
3.Planaren hedapena.....	8
3.1.Gizarte-zerbitzuen zentroyen ikuskaritza eta kontrola.....	8
3.2.Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan	13
3.3.Zainketen kontrola etxean	21
3.4.Gizarte-prestazioak aztertzea.....	23
3.5.Dirulaguntzen berrikuspena	29
4.Planaren gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa	34
5.Baliabideen erabilera.....	36
6.Kontrol-koadroa.....	39

1. Sarrera

Azken urteetan, gizarte-zerbitzuak neurri- eta tresna-multzo bihurtu da, gure gizartean herritartasun osoa bermatzeko. Horrela, horiek guztiak, ongizate-estatuaren laugarren oinarritzat hartzen dira, eta Hezkuntza, Osasun eta Pentsio Sistemarekin batera euskarri ematen diote hari.

Modu horretan, gizarte-zerbitzuetara bideratutako baliabide publikoak finkatzeko eta hazteko testuinguru batean, ezinbestekoa da prozedurak ezartzea, gizarte-prestazioen **erabilera egokia bermatzeko, eraginkortasuna hobetzeko** eta gizarte-zerbitzu eta -prestazioak ematean **gerta daitezkeen abusuak saihesteko**.

Gizarte-zerbitzuen bokazio unibertsala zein haren erabilera egokia bermatzeko beharra Bizkaia Goazen 2030 estrategian jasota daude. Hor, Lurralde Historikoaren erronka estrategiko gisa aitortu da **“gizarte- eta lurralde-kohesioa eta aukera-berdintasuna”**, bai eta **“Bizkaia moderno, hurbil eta arduratsua”** bultzatzea ere.

Hori horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta hura garatzeko legezko xedapenetan emandako eskumenen arabera, **ikuskapen- eta kontrol-eginkizuna du gizarte-zerbitzuen arloan**.

Hala, **Bizkaiko Foru Aldundiak** herritarren eskura jarritako gizarte-baliabideen erabilera egokiaren jarraipenarekin eta ebaluazioarekin du **konpromisoa**, eta helburua da **gizarte-zerbitzu eta -prestazioak haiek jasotzeko eskubideak dituztenei bideratzen direla bermatzea**.

Gogoeta horiei erantzuteko, **Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorra 2024-2027**, **gizarte-zerbitzuen arloko kontrol-, jarraipen- eta ikuskapen- eginkizun hori indartu eta koordinatzeko helburuarekin sortu da**, honako ezaugarri hauek dituen errealitateari erantzuteko:

- **Elkarreragingarritasuna eta erakundeen arteko lankidetzaren** direla-eta proposatutako aukerak, jarraipenaren kontrola eta eraginkortasuna erraztuko dutenak.
- **Arreta-komplexutasun handiagoko gero eta egoera gehiago** daude, bai maila sozialean, bai zainketa-mailan, eta etorkizunean areagotu egingo dira. Horiek, erabiltzailearen zeregin nagusia onartzen du bere arretan, eta **emandako zainketa kalitatea eta egokitasuna** bermatzen du.
- Mendekotasunaren esparruan, adinekoek **etxean egon nahi dute**, edo hala badagokie, “etxean egongo balira” bezala sentitzen diren egoitzaren batean. Horretarako, azken urteetan, **gizarte-zerbitzu** esanguratsuak sortu dira, bai onuradunen kopuruan, bai baliabideenetan. Horri esker, adinekoak bere ingurunean mantentzen daitezke. Hori dela-eta, kontrola zentroetatik hasi behar da, eta etxea ere barne hartu beharko luke.
- Mendekotasun, desgaitasun eta bazterketaren arloan aldizka ordaintzen diren **prestazio sozialen eskaintza zabala** handitzeko eta finkatzeko, **haien erabilera egokiaren jarraipen eraginkorra** egin behar da.

2. Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorrarekin (2024-2027) lotutako 2024 Ekintza Plana

Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorra (2024-2027 aldia), kontrol-, jarraipen- eta ebaluazio-funtzioa indartzeko jarduketa-esparrua da gizarte-zerbitzuen arloan, honako helburu hau lortzeko:

Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituen gizarte-zerbitzu eta -prestazioen helburuak eta baldintzak bete daitezzen, haien jarraipen sistematiko eta koordinatua egitea

Helburu horiek betetze aldera, planak ezarri egin du Bizkaiko Foru Aldundiak urtero Ekintza Plan bat diseinatzea eta txertatzea. Horren bidez, dagokion urtean zerbitzu eta prestazio sozialak ikuskatzeko berariazko helburuak definituko dira.

Horrela, Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorra (2024-2027) 2024. urtean gauzatuko da, **2024ko Ekintza Plan** honetan. Planak **eguneratu** egiten ditu aurreko ekitaldian ezarritako **berariazko helburuak**, eta indartu egiten du Bizkaiko Foru Aldundiak honako helburu hauek betetzearekin duen konpromisoa:

- Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituen gizarte-zerbitzu eta -prestazioen kontrola bultzatzea, haien baldintzak **bete eta erabiltzen direla** egiaztatuz.
- Kontrol zorrotza, ikuskapenaren bidez, **Bizkaian ematen diren gizarte-zerbitzuen kalitatea ziurtatzen duena**: araudi arautzailea betetzea eta emandako arretaren eta zainketen kalitatearen jarraipena egitea.
- **Administrazioen artean egiten den datu-trukea, kudeaketa aurreratua eta elkarreragingarritasuna** bultzatzea, kontrol-mekanismo berritzaileak sartzeko, gizarte-zerbitzuetarako sarbide-prozesuak sinplifikatzeko, erantzunean eraginkortasuna hobetzeko eta kontrola handitzeko.
- **Ebaluazio-eginkizuna eta eginkizun pedagogikoa** garatzea, zentroen funtzionamendua hobetzeko helburuarekin, haietan arretaren kalitatea hobetzen duten neurriak hartuz.

Plan horien izaera integrala honako **jarduketa-bloke** hauen bidez gauzatzen da. Hona hemen haien baldintzak:

1. Gizarte-zerbitzuen zentroen ikuskaritza eta kontrola:

Araututako gizarte zerbitzuetako zentroetan egiaztatzea arautegia betetzen dela, zerbitzua emateko baldintza material eta funtzionalei dagokienez, eta elementu ebaluatzailea eta pedagogikoa sartzea.

2. Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan:

Egiaztatzea Gizarte Zerbitzuetako Zentroetako erabiltzaileek Banakako Arreta Planetan (BAP), Gizarte-heziketako Esku-hartze Planetan edo beste gizarte-zerbitzuetako zentro batzuetako antzeko Arreta Planetan ezarritako zainketak jasotzen dituztela.

3. Zainketen kontrola etxean:

Egiaztatzea mendekotasun- edota desgaitasun-egoeran dauden pertsonen kalitate oneko zainketak jasotzen dituztela, eta ez dela tratatu txarreko egoerarik gertatzen haren familia-giroan. Bestalde, zaintzaileen egoera ebaluatzea.

4. Gizarte-prestazioak aztertzea:

Prestazio sozialak jasotzen dituzten pertsonen berariazko baldintzak betetzen diren aztertzea, eta emandako prestazio ekonomikoa ezarritako helbururako erabiltzen den aztertzea.

5. Dirulaguntzak aztertzea:

Foru Sektore Publikoaren barruan ez dauden eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren kontura diren pertsona fisiko edo erakundeei emandako dirulaguntzak edo laguntzak aztertzea, jasotako finantzazio publikoa dirulaguntzaren edo laguntzaren xederako aplikatu dela bermatzeko helburuarekin.

Testuinguru horretan, Ikusatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorrekin (2024-2027) lotutako 2024 Ekintza Planak **berariazko helburu hauek ditu jarduketa-blokeen arabera:**

1. Gizarte-zerbitzuen zentroyen ikuskaritza eta kontrola:

- Lurraldean onartutako zentro guztiak (% 100) ikusatzeko (zerbitzua emateko arautegi arautzailea duten zentroak) esparru hauetan: **adinekoak**, **degaitasuna** dutenak, **adingabeak** eta **nerabeak** eta **indarkeria matxista** jasan duten emakumeak.

2. Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan

- Egoitzetan eta/edo eguneko zentroetan mendekotasun-egoeran dauden adinekoen % 5 inguru kontrolatzea urtero.
- Mendekotasuna eta/edo degaitasuna duten pertsonen arretarako zentroetan zainketak jasotzen dituztenen % 10 inguru kontrolatzea urtero, arreta-planen jarraipena eginez gizarte-zerbitzuetako zentroetan.
- Hartutako babes-neurria duten adingabeen kasuen % 100 kontrolatzea urtero, Gizarte-heziketako Esku-hartze Planen bidez.
- Indarkeria matxista jasan duten emakumeen kasuen % 100 kontrolatzea urtero, bai eta indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzuak eta prestazioak ere.
- Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako egoitzetako edo eguneko zerbitzuetako prozesuen onuradunen % 100 kontrolatzea urtero (Inklusio Programa).
- Gazte Estrategiaren esparruan, egoitzetako edo eguneko zerbitzuetako prozesuen onuradunen % 100 kontrolatzea urtero.

3. Zainketen kontrola etxean

- Familia-inguruneko zainketetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) jasotzen duten **familien % 25** kontrolatzea urtero.

4. Prestazio sozialak aztertzea

- Kotizazio gabeko pentsioekin (KGP), **etxebizitza alokatzeagatiko osagarriarekin**, eta degaitasuna duen pertsonaren gizarteratzea onartzeko prestazioekin (MIGILE) lotuta emandako **prestazioen % 100** aztertzea.
- Familia-inguruneko zainketarako emandako prestazioen % 100 aztertzea.
- Mendekotasuna duten pertsonentzako egoitzen foru-zerbitzuari lotutako **prestazio ekonomikoen % 100** aztertzea (ZLP).
- Laguntza pertsonalerako **prestazio ekonomikoen % 100** aztertzea (LPPE).
- Gizarte-ongizateko funtsaren **prestazio ekonomikoen % 100** aztertzea (GOF).
- Gizarteratzeko laguntza berezien % 100 aztertzea (GLB).
- Gizarteratze-prozesu espezializatuei lotutako prestazioen % 20 aztertzea (GPELP).

5. Dirulaguntzen berrikuspena

- Dirulaguntzen justifikazioen % 100 aztertzea.
- Aztertzea justifikazioko kontua, **lehia askean diruz lagundutako erakundeen % 100aren gastuen**, edo **60.000 eurotik beherako gastua** dutenen egiaztagiriek.
- Aztertzea justifikazioko kontua, kontu-ikuskariaren txostenarekin, **dirulaguntza izendunen % 100**, eta **erakundeen % 100**, norgehiagokan **60.000 euroko** edo hortik gorako dirulaguntza jaso badute.

3. Planaren hedapena

Jarraian, helburuen xehetasuna, irismena eta 2024ko Ekintza Plan honetan ezarritako jarduketan ezaugarriak aurkeztuko ditugu, aurreikusitako jarduketa-bloke bakoitzean.

3.1. Gizarte-zerbitzuen zentroyen ikuskaritza eta kontrola

Helburua

Gizarte-zerbitzuen zentroyen ikuskaritza eta kontrolaren helburua da Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Zentroek **araudi arautzailea, eta hala badagokie¹, Gizarte Zerbitzuen prestazioa bideratzen duten hitzarmenen klausulak betetzen dituela** bermatzea, haietan zerbitzu egokia eman ahal izateko, zerbitzu edo zentro bakoitzerako arauen edo hitzarmenen bidez ezarritako baldintza material eta funtzioetan oinarrituz.

Arduradunak

Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuetako Zentroak haien hartzaileen arabera sailkatzen dira, helburu eta beharizan jakinen arabera. Zentro horien ikuskapen- eta kontrol-eginkizunaren inguruko erantzukizuna honela banatzen da:

– **Ikuskapen- eta kontrol-zerbitzua:**

Ikuskapen- eta kontrol-zerbitzuak honako hauek barne hartzen ditu: alde batetik, **Ikuskapen Atala**, gizarte-zerbitzuetako erakunde, zerbitzu eta zentroyen **ikuskapen- eta ebaluazio-eginkizunak dituen**; eta, bestetik, **Kontrol Atala**, gizarte-zerbitzuetako erakunde, zerbitzu eta zentroyen **baimen-, erregistro- eta homologazio-eginkizunak dituen**, baita **zehazpen-espedienteen instrukzioa** ere.

Zerbitzu honek eskumena du titulartasun publiko zein pribatuko zentroyetan ikuskapen- eta kontrol-eginkizunak egiteko, betiere baldintza material eta funtzionalak arautzen dituen arautegia badute.

Gaur egun, xede horretarako berriazko arautegia duten Gizarte Zerbitzuetako Zentro hauek daude:

• **Adinekoak:**

Adinekoentzako Bizkaiko zentroyen sareak egoitzak eta eguneko zentroak barne hartzen ditu. Honela sailkatzen dira egoitza-baliabideak: egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta babespeko apartamentuak.

Adinekoentzako **egoitzak** honela definitzen dira: mendekotasun-egoeran edo mendekotasun-arriskuan dauden eta etengabeko arreta osoa jasotzen duten 65 urtetik gorako adinekoentzako ohiko edo betiko etxebizitza gisa erabiltzeko zentroak eta, kasuan kasu, aldi baterako erabiltzeko zentroak.

¹ Ez dago Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuetako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak artatzeko gizarte-zerbitzuetako zentroyen erregulaziorik. Kasu horietan, sinatutako hitzarmenetan ezarritako baldintzak egiaztatuko dira.

Bestalde, **etxebizitza komunitarioak** bizikidetzarako unitateak dira; gehienez ere, hamalau plaza izango dituzte, eta beren buruaz baliatzeko nolabaiteko gaitasuna eta familia-inguruko antzeko bizitza-estilo bat duten pertsonentzako dira.

Babespeko apartamentuak, berriz, honela definitzen dira: zerbitzu kolektiboak (nahi izanez gero erabiltzeko) dituzten eta intentsitate handiagoko baliabideen beharrik ez duen egoera psiko-fisikoan dauden adineko pertsonen ostatu ematen dien etxebizitza autonomoen, unipertsonalen edo bi pertsonentzako etxebizitzaren multzoa.

Azkenik, **eguneko zentroek** mendetasun-egoeran dauden adinekoei banakako arreta integrala ematen diete, euren autonomia pertsonala hobetzeko edo hari eusteko, adinekoren muga funtzionalak konpentsatzeko eta haien ohiko zaintzaileei laguntza emateko.

- **Desgaitasuna duten pertsonak:**

Desgaitasunaren esparruan, **haurren garapenerako eta arreta goiztiarreko zentroyen** ikuskapena eta kontrola egiten da.

Arreta goiztiarra nahasmenduak dituzten edo beren garapenean haiek izateko arriskua duten 0 eta 6 urte arteko haurrei, haien senideei eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa da, osasun, hezkuntza eta gizartearen ikuspegitik. Helburua da haien behar iragankor edo iraunkorrak lehenbailehen asetzea.

Zentro horietan, arreta goiztiarreko esku-hartzeen taldeek diziplina anitzeko arreta terapeutikoa ematen diete haurrei, haien senideei eta ingurukoei.

- **Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak:**

2024ko Ekintza Planak **babesgabetasun soziala duten haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak** ikuskatzea eta kontrolatzea jasotzen du.

Baliabide horiek babesgabetasun edo gizarte-arrisku larriko egoeran dauden adingabeei zuzenduta daude, eta haien **zainketa edo tutoretza** Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartzen du. Bestalde, denboraldi batean senideengandik bereizi diren adingabeei beren beharrezanezi egokitutako bizikidetzak aukera bat ematen diete.

Era berean, indarkeria matxistaren aurkako Babes Zerbitzuaren mendeko harrera-baliabideak eta familiei laguntzeko baliabideak ikuskatzen dira.

Zentro horien helburua da emakumeak aldi baterako hartzea, eta haiekin batera euren kargura dauden adingabeko seme-alabak eta euren bizikidetzak-unitatea osatzen duten mendeko pertsona helduak, arrazoi sozioekonomikoak eta/edo euren egoera fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duten elkarbizitza-arazo larriak direla-eta egoera oso larrian bizi badira.

Irismena

Arestian azaldutako Gizarte Zerbitzuetako Zentroyen sailkapenean oinarrituz, erabiltzaile motaren arabera egindakoa, honako ikuskapen- eta kontrol-irismen hauek definitu dira:

3.1.1. Ikuskapen- eta kontrol-zerbitzua:

40/1998 Dekretuaren 50. artikulua, martxoaren 10ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen duenak, ezarri du “erregistroetan dauden zerbitzu eta zentro guztiek urtean behin gutxienez ikuskapena izango dutela”.

Aurreko paragrafoan azaldutakoarekin bat, arautzen dituen berariazko arautegia duten zerbitzu eta zentroi eskusiboki egiten die erreferentzia manu honek.

Ikuskapen- eta kontrol-eduki jakinari dagokionez, Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak berariazko ikuskapen-plan bat garatzen du urtero, baliabide edo zentro bakoitzerako. Horrela, 2024ko Ekintza Plan hau txertatu aurretik onetsitako berariazko ikuskapen-planen edukia adieraziko da jarraian.

- **Adinekoak:**

2024. urtean **adinekoentzako zentroyen % 100** ikuskatu eta kontrolatuko dira, baldintzak arautegi bidez araututa daudelako.

Zentzu horretan, 2024an **adinekoentzako egoitzei** dagokienez egingo den ikuskapenean, lokailu fisikoen erabilera aztertuko da, kontuan hartuta erabilera bideratu behar duten oinarriko printzipioak zainketa, salbuespentasuna, medikuaren aginduz hautemandako beharizana, proportzionaltasuna eta behin-behinekotasuna eta gehiegizkoen debekua direla. Bestalde, egoitzetan “tratu txarren protokoloa” ezarri dela egiaztatuko da. Protokolo horren helburua, besteak beste, egoiliarren duintasuna eta eskubideak bermatzea da, eta tratu txar fisiko, ekonomiko, psikiko, sozial eta/edo sexualak ahalik eta lasterren detektatzeko balio du.

Bizikidetz-unitateak dituzten egoitzen kasuan, gainera, interes berezia jarriko da erreferentziazko profesionalen egoiliarra ezagutzeko, eta konfidentziasunaren garrantzia azpimarratuko da egoiliarrarekin konfiantzazko harremana ezartzeko.

Beste alde batetik, 2024an **etxebizitza komunitarioei** dagokienez egingo den ikuskapenaren helburua izango da egoiliar bakoitzarentzako jarduketa-plan indibidualizatu baten diseinua bultzatzea, etxebizitza komunitarioaren lan- eta antolaketa-dinamikak aztertuta.

Bestalde, **babespeko apartamentuetan**, erreferentziazko langileak dauden ikuskatuko da 2024an. Orobat, larrialdi-egoerentarako interkomunikazio-sistema dagoela egiaztatuko da, eta baliabideak eskaintzen dituen zerbitzuei eta prestazioei buruzko informazioa bilduko da.

Azkenik, 2024an **adinekoentzako eguneko zentroyei** lotuta egingo den ikuskapena autonomia-dimentsioari jarraitutasuna ematean zentratuko da. Zentzu horretan, bereziki azpimarratuko dira ikastetxeak lokailu fisikoen erabilera murrizteko eta ezabatzeko hartutako neurriak. Halaber, erabiltzaileek jardueren urteko programa egiten nola parte hartzen duten aztertuko da.

- **Desgaitasuna duten pertsonak:**

Halaber, legez ezarrita dagoen moduan, 2024. urterako, **haurren garapenerako eta arreta goiztiarreko zentroyen % 100** ikuskatzea eta kontrola garatzea zehaztu da.

Hala, 2024an zentro horiei dagokienez egingo den ikuskapenak diziplinartekotasun-irizpideekin lan egiteko beharra aztertuko du. Obligazio hori estuki lotuta dago arretan modu batera edo bestera esku hartzen duten profesional guztien arteko koordinazioa, lankidetzeta eta komunikazioa eskatzearekin.

- **Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak:**

Adierazitako legezko aurreikuspenaren arabera, 2024. urterako **babesgabetasun sozialeko egoeran dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideen**

% 100 ikuskatzea eta kontrolatzea ezarri da. Zentzu horretan, azpimarratu behar da haur eta nerabeentzako zentroetan sei hilean behin ikuskapena egin behar dela².

Modu horretan, 2024. urtean, langileek egoitza-baliabidearen ezaugarrietara egokitzen laguntzeko hasierako prestakuntza eskuratzeko garrantzian zentratuko da, baita lanpostuan egon bitartean etengabeko lanbide-prestakuntza jasotzeko eskubidean ere, adingabeen beharrian askotariko eta aldakorrei etengabe erantzuteko gai diren prestakuntza-programen bidez.

Bestalde, **indarkeria matxista jasan duten emakumeen egoitzen % 100** ikuskatuko da, mota horretako zerbitzuak baldintza material eta funtzionalen legezko erregulazioa dutelako.

Zentro horiek ikuskatzean, haien okupazio-maila aztertuko da, eta dekretuan bildutako segurtasun-neurriak eta segurtasun-gailuak begiratuko dira, artatutako pertsonen segurtasun fisikoa eta psikikoa bermatzeko helburua gauzatze aldera.

Modu horretan, 2024an, kalkuluen arabera, **390 zentro** ikuskatu eta kontrolatuko dira.

Gizarte-zerbitzuen zentroyen ikuskaritza eta kontrola

<i>Ikuskapenaren eta kontrolaren irismena 2024an</i>		<i>Zentroyen bolumena³</i>	<i>Ikuskapenaren irismena</i>	<i>Ikuskapenaren helburua</i>
ADINEKOAK	Adinekoentzako egoitzak	155	% 100	156 ⁴
	Etxebizitza komunitarioak	49	% 100	49
	Babespeko apartamentuak	7	% 100	7
	Adinekoentzako eguneko zentroak	64	% 100	64
DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK	Haurren garapenerako eta arreta goiztiarrerako zentroak	54	% 100	54
BABESGABETASUN A	Adingabeen Egoitza Harreraren Sarea ⁵	58	% 100	58
	Indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako harrera-zentroak	3	% 100	3
				390

Erreferentziako arautegia

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

² 3/2005 Legearen 79. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak ikuskatzeari buruzkoa.

³ Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatutako zentroyen bolumena 2024ko maiatzaren 30ean.

⁴ 2024. urtean zehar, adinekoentzako egoitza berria onartu da, eta, beraz, zentroyen bolumena eta ikuskapenaren helburua 156 dira.

⁵ Adingabeen Egoitza Harreraren Sarea babesgabetasun sozialeko egoeran dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabide guztiak eta adingabeak hartzeko etxeak barne hartzen ditu.

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak babesteari buruzkoa.
- 13/2016 dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko eskuhartze integralari buruzkoa.
- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautu dituena.
- 148/2007 dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautu dituena.
- 62/2002 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortu duena.
- 202/2000 Dekretua, urriaren 17koa, mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroi buruzkoa.
- 40/98 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak baimendu, erregistratu, homologatu eta ikuskatzeko arauak ezarri dituena.
- 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroi buruzkoa.
- 41/98 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Adinekoentzako Etxeetako Gizarte Zerbitzuei buruzkoa⁶.

⁶ Uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren xedapen indargabetzaileak dekretu hori indargabetu egiten du, babespeko apartamentuei eta etxebizitza komunitarioei dagokiena izan ezik.

3.2. Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan

Helburua

Erabiltzaile bakoitza foru egoitza-sare batean sartzen denean, haren egoeraren diziplina anitzeko azterketa eta ebaluazioa egiten da. Hori kontuan hartuta, Banakako Arreta Plan bat egiten da, eta haren izena, izaera eta edukia aldatu egiten da, erabiltzailearen eta bere ezaugarri pertsonalen arabera.

Egoitzen foru-sarearen barruko zentro guztiek banakako arreta-planak egitera derrigortuta daude, sektore pribatuko zentroekin egoitza-plazak hitzartzean zein zentro publikoak kudeatzeko hitzarmen eta aginduetan exijitutako eduki teknikoaren parte gisa.

Horrela, Banakako Arreta Plana esku hartzeko sistema gisa egituratu da, elkarrekin erlazionatuta dauden programez osatua, egoitza-testuinguru batera egokitu behar dena, erabiltzaileen beharrezanean, eskariei eta bizi-kalitateari erantzuna emateko helburuz.

Arreta Planak oinarritzat hartuz, Arretarako eta Zainketen Kontrolaren helburua da **erabiltzaile bakoitzaren egoeraren jarraipena bermatzea, eta jasotzen dituen prestazioen laguntza-kalitatea kontrolatzea.**

Arreta Planen honako balorazio- eta jarduketa-eremu nagusi hauek egiaztatu dituzte:

- **Gizarte-arloa:** erabiltzailearen gizarte- eta familia-harremanak mantentzea eta sustatzea, bai egoitza-esparruan, bai komunitate-esparruan.
- **Arlo psikologikoa:** egoiliarren ongizate afektiboa sustatzea, haren gaitasun kognitibo eta sozialen, eta emozio- eta harreman-gaitasunen bidez.
- **Osasun-arloa:** osasuna sustatzea, prebenitzea eta mantentzea, bizi-kalitate onena emateko.

Arduradunak

Honako zerbitzu hauek arduratzen dira Arretaren eta Zainketen jarraipena egiteaz zentroetan:

- **Zentroetako Arreta Zerbitzua:**

- **Mendekotasun-egoeran dauden adinekoak:**

Mendekotasun-egoeran dauden adinekoen zentroak, jarduketa-bloke honen xede direnak, foru-erantzukizun publikoko plazak dituzten adinekoentzako **Egoitzak eta Eguneko Zentroak** dira.

- **Desgaitasuna duten pertsonak:**

Desgaitasunaren esparruan egindako gizarte-zerbitzuei dagokienez, 2024ko Ekintza Planak, lehendabizi, foru-erantzukizun publikoko plazak dituzten **Zentro okupazional**etako arretaren eta zainketen jarraipena barne hartzen du.

Zentro horiek sortu egin dira adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonak gizarteratzea errazteko, lan-esparruan bereziki.

Era berean, arretaren eta zainketen jarraipena egitea aurreikusten da **desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan**. Zentro horiek ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkorra izateko bizikidetzako baliabideak dira mendekotasuna edota desgaitasuna duten pertsonentzat eta, hala denean,aldi baterakoa, betiere

haien beharrianean erantzun egokia ematea ezinezkoa bada, ez etxean, ez ostatu emateko beste aukera batzuetan.

Halaber, Ekintza Plan honetan barne hartzen dira **desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak**. Hor, banakako arreta integrala ematen zaie egunean zehar erabiltzaileei, haien autonomia pertsonala mantentzeko edo hobetzeko eta eragozpen funtzionalak gainditzeko, prebentzio-, gaikuntza- eta laguntza-prestazioak eskainiz.

Azkenik, desgaitasunaren esparruan, barne hartzen da Arretaren eta Zainketen Kontrola **gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitzetan**, desgaitasunaren barruko azpimota gisa, baldin eta beste aukera bat ekartzen badute ohiko ingurunetik kanpoko arreta eskatzen duten eta gaixotasun mentala duten pertsonentzat.

– Umeen Zerbitzua:

- Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak:

Babesgabetasunaren esparruan, 2024. urterako jarduketako-bloke honen xede gisa zehaztu da Arretaren eta Zainketen jarraipena egitea **Haur eta Nerabeentzako Egoitza Baliabideetan**, baita zainketena ere **Adingabeentzako Harrera Etxeetan**.

– Indarkeria matxistatik babesteko eta familiei laguntzeko zerbitzua:

- Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak:

Era berean, Plan honek 2024. urterako barne hartzen du Arretaren eta Zainketen berrikuspenean indarkeria matxistan jasan duten emakumeentzako egoitzetan, indarkeria matxista jasan dutenentzako zerbitzu eta prestazioez gain.

– Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua:

- Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden edo arriskuan dauden pertsonak:

Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako egoitzetako edo eguneko zerbitzuetako prozesuetako Arreta eta Zainketak (Inklusio Programa), bai eta Gazte Estrategiaren esparruan egoitzetako edo eguneko zerbitzuetako prozesuetakoak ere, 2024ko Ekintza Planean kontrolatuko dira.

Irismena

3.2.1. Zentroetako Arreta Zerbitzua:

Mendekotasun- eta desgaitasun-egoeran dauden adinekoen esparruetan egindako jarraipen-lanez gain, ekitaldi honetan, **Banakako Arreta Planen** kanpoko jarraipenak egitea ezarrita dago, Zentroetako Arreta Zerbitzuak markatutako jarraibideei eta oharrei jarraituz eta haren koordinaziopean, aurreko ekitaldian mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroetan egindako jarraipenekin bat.

Jarraipen horien hasieran, gizarte-zerbitzu eta erabiltzaile bakoitzerako bisita egunen eta ordutegiaren plangintza egiten da, nahikoa aurrerapenarekin. Bisita hori, salbuespenak salbuespen, zazpi eguneko epean egiten da, Zentroetako Arreta Zerbitzuak baloratuko dituzten pertsonak izendatzen dituenetik zenbatzen hasita.

Bisita eta azterketa bakoitzarekin idatzizko txosten bat egiten da. Txosten horretan, sartu den pertsonari dagokion **gizarte-, osasun- eta eginkizun-arloko azterketatik** ateratako ondorioa eta informazio guztia jasotzen da.

Halaber, aipatutako txostenean, hala badagokio, aldaketa eta helburu berriak planteatu daitezke, **erabiltzailearen bizi-kalitatea osorik mantentzen edota hobetzen dela bermatzeko.**

Txosten hori berehala igorriko zaio Zentroetako Arreta Zerbitzuari, bidezko neurriak har ditzan. Azkenik, lortutako emaitzak erreferentziazko pertsonarekin edo senideekin alderatzen dira, jakinarazteaz gain.

Arretaren eta Zaintzen kontrola Zentroetan egiteko, foru-erantzukizun publikoko plazak dituzten **gizarte-zerbitzuetako zentroen erabiltzaile guztiak** kontuan hartzen dira. Horrela, Arretaren eta Zaintzen Kontrolaren honako irismen hauek zehazten dira Bizkaiko Zentroetan:

- **Mendekotasun-egoeran dauden adinekoak:**

Egoitzetan foru-plaza duten erabiltzaileei lotutako **Banakako Arreta Planen % 5aren** irismena ezarri da, baita adinekoentzako **Eguneko Zentroetako** erabiltzaileen BAPen % 5 ere. Horren ondorioz, **248 eta 65 Banakako Arreta Planen** jarraipena egingo da, hurrenez hurren.

- **Desgaitasuna duten pertsonak:**

Era berean, Zentroetako Arreta Zerbitzuak ezartzen du, gutxi gorabehera, **desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte-zerbitzuetan Banakako Arreta Planen % 10** kontrolatuko dituela. Horrela, **403 Banakako Arreta Planen**⁷ jarraipena egingo du.

3.2.2. Umeen Zerbitzua:

Aingabe baten babesgabetasun larriaren zantzuak badaude, Umeen Zerbitzuak jaso beharko du kasua, eta ikerketa eta balorazio osagarria egingo dute, egoeraren larritasuna zehazteko eta kasuarekin nondik jo erabakitzeke.

Babesgabetasun-egoera larria edo oso larria bada, Umeen Zerbitzuak esku hartuko du⁸. Halako kasuetan, Umeen Zerbitzuak jarduketako prozedura arrunta abian jarriko du, eta hori burutzeko, babesgabetasun-egoeran dagoen adingabearengan aurkitutako beharrezkoen egokitutako **Banakako Arreta Plana** egingo dute.

Gauza bera gertatzen da Bizkaiko Foru Aldundiak adingabea **jagotea** bere gain hartzen duen egoeretan, bai gurasoek eskatuta, bai epai judizialak hala erabakita, edo berehalako arreta-egoeretan (behin-behineko jagoletza).

Horrela, adingabearen babesgabetasuna sortzen duten inguruabarren balorazioan, ezinbestekotzat jotzen denean Umeen Zerbitzuak esku hartzea, hark bere gain hartzen du jagoletza edo tutoretza. Horrek zenbait ondorio ditu, hala nola adingabearen harrera; familia-harrera edo egoitza-harrera izan daiteke.

⁷ 403 Banakako Arreta Plan horietatik, 129 zentro okupazionaleri dagozkie.

⁸ 3/2005 Legearen II. Kapituluak, otsailaren 18koak, Haurrak eta nerabeak artatzeari eta babesteari buruzkoak, Administrazioak arrisku- eta babesgabetasun-egoeretan duen ekintza babeslea definitu eta arautu du.

Harrera-neurria hartuta, Zerbitzu honek **Banakako Arreta Plan guztiak berrikusi behar ditu**. Berrikuspena⁹ Planetan definitutako jarduketak betetzen direla egiaztatzean oinarritzen da, esku hartzeko denborari edo adingabeari nahiz familiari emandako baliabideei dagokienez, besteak beste.

Halaber, kontrol horrek heldu egin behar dio **adingabearen kasuaren bilakaerari**, bere Banakako Arreta Planean planteatutako helburuei eta haien betetze-mailari dagokienez.

Azkenik, Plan bakoitzaren berrikuspenak **emaitzen eta egindako esku-hartzearen bilakaeraren balorazio orokorrari** heltzen dio, bai eta adingabearen gaur egungo egoeraren balorazioari, kasuaren eta adingabearen beharrezanaren pronostikoari, eta jarraitu beharreko esku-hartzeari zein egokitzat jotzen diren Planaren **aldaketen proposamenei** buruzko orientazioari ere.

- **Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak:**

Arestian adierazi denez, Umeen Zerbitzuak bere gain hartu behar du adingabeen jagoletza edo tutoretza, eta horrek harrera-neurria aplikatzea dakar, familia-harrera edo egoitza-harrera izan daitekeena.

Egoitza-harrerari dagokionez, **Adingabeen Egoitza Harreraren Sareko** Arretaren eta Zainketen jarraipenak, arautegian ezartzen den moduan, hartutako babes-neurria duten **adingabeen kasuen % 100** barne hartuko du.

Era berean, familia-harrerari dagokionez, **Adingabeentzako Familia Harreraren Sareko** Arretaren eta Zainketen kontrolak **adingabeen kasuen % 100** ere barne hartuko du, arautegian ezartzen den moduan.

Modu horretan, **Adingabeen Harreraren Sareko** Arreta eta Zainketen Kontrolaren lanak **1.200 erabiltzaile adingaberaren** jarraipena barne hartuko du 2024an, eta **340**rena **Adingabeen familia-harrerarako**.

3.2.3. Indarkeria matxistatik babesteko eta familiei laguntzeko zerbitzua:

Indarkeria matxista jasan duten emakumeen egoitzetako erabiltzaileen Banakako Arreta Planen inguruan esku hartzea eta gainerako jarduketak zentro horietako langileek egiten dituzte, Indarkeria Matxistaren aurka Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuarekin koordinatuta.

Modu horretan, zentro horiek **etengabeko komunikazioa** daukate Indarkeria Matxistaren aurka Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuarekin, eta, gainera, **hiru hilean behin txosten bat** ematen diote Zerbitzu horri. Bertan, Banakako Arreta Plan bakoitzean ezarritako **helburuen bilakaera eta betetze-maila** zehazten da.

Halaber, txostenak jaso ondoren, Indarkeria Matxistaren aurka Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren gizarte-langileek **jarraipen-bilera bat antolatzen dute** egoitzetako erabiltzaile bakoitzarekin, baita han dauden langileekin ere.

- **Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak:**

Modu horretan, legez ezartzen den moduan, **indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako egoitzetako** arreta eta zainketen berrikuspenak kasuen % 100 izango du xede 2024. urtean, baita **indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta prestazioek** ere.

⁹ Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerbitzu Espezializatuak babesik gabeko haurrekin esku hartzeko eskuliburua.

3.2.4. Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua:

Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroan aitortutako oinarriko esku-hartze prozedura inplementatzearen alde egiten du (19. eta 20. artikulua), erreferentziako profesionalaren figura sendotuz. Lan hori zerbitzuaren gizarte-langileek gauzatzen dute. Prozedura horren benetako inplementazioak, eta ondorioz, itundutako zentro edo zerbitzuetako batera doan eta bazterkeria-egoeran edo arriskuan dagoen pertsona orori erreferentziako profesionalaren esleipenak, aukera ematen du pertsonaren prozesua koordinatzeaz eta haren homogeneotasuna, koherentzia eta osotasuna bermatzeaz arduratzen den figura bat izateko.

Hala, etengabeko koordinazioa dago pertsona erabiltzailea den zentro edo zerbitzuekin, baita haien hezkuntza-taldeak osatzen dituzten profesionalekin ere. Horren ondorioz, garatutako prozesuan eta pertsonak jasotako arretaren ikuskeria eta kontrol zorrotza ziurtatzen da.

Gauzak horrela, profesionalak erabiltzailearen arretarako prozesu osoan parte hartzen du, eta modu proaktiboan da haren buru.

Prozedura horren hasieran, gizarte-bazterkeriako egoera baloratu eta onartzen da, interesdunak, edo, hala badagokio, haren ordezkariak duen pertsonak aurretik eskaera eginda. Lehenengo mailako arretako gizarte-zerbitzuek eskatzailearen egoeraren balorazioa edota diagnostiko espezializatua beharrezkotzat jotzen dutenean egiten da eskaera.

Eskatzailearen **egoeraren balorazioa** **Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren** gizarte-langileen taldeak egiten du. Baloraziorako, 85/2014 Dekretuak, uztailearen 1ekoak, gizarte-bazterkeriako egoera aitortzeko prozedura arautu duenak, ezarritakoari jarraitu beharko dio taldeak. Hala ere, hemendik gutxira, gizarteratze-arloan espezializatuta dagoen prozedura arautzen duen dekretu berriak indargabetuko du.

Behin balorazioa edota diagnostiko espezializatua eginda, pertsonak zerbitzu edo prestazio sozialak jasotzeko eskubidea badu, **Arreta Pertsonalizatuko Plan** bat egingo zaio. Horren bidez, bere beharrezko erantzuteko egokienak diren bigarren mailako arretako **baliabideen konbinazioa edo baliabidea zehaztuko da.**

Gero, erabiltzailea sartzen den zentroak edo zerbitzuak **banakako arreta programa** bat diseinatu beharko du erabiltzailearentzat. Hor, garatu beharreko prozesurako eta beharrezko asetzeko egin beharreko **berriazko jarduketak eta esku-hartzeak** konkretatuko dira.

Azkenik, erabiltzaile bakoitzari **erreferentziako profesional** bat esleituko zaio, bere inklusio-prozesua koordinatuko duena.

Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak **etengabe koordinatu eta ikuskatzen** du esparru horretako gizarte-zerbitzuetako erabiltzaile bakoitzaren Banakako Arreta Planean ezarritako esku-hartzeak egiten direla. Hortaz, 2024. urtean, berrikuspenaren irismena **banakako arreta programen % 100koa** izatea finkatu da.

Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan

<i>Kontrolaren irismena 2024an</i>		<i>Erabiltzaileen bolumena</i>	<i>Kontrolaren irismena</i>	<i>Kontrolaren helburua</i>
MENDEKOTASUN EGOERAN	Pertsonentzako egoitzak Adinekoak	4.951	% 5	248

Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan

<i>Kontrolaren irismena 2024an</i>		<i>Erabiltzaileen bolumena</i>	<i>Kontrolaren irismena</i>	<i>Kontrolaren helburua</i>
DAUDEN ADINEKOAK	Pertsonentzako eguneko zentroak Adinekoak	1.307	% 5	65
DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK	Zentro okupazionalak	1.294	% 10	129
	Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak	1.488	% 10	149
	Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak	1.125	% 10	113
	Gaixotasun mentala dutenen pertsonentzako egoitzak	121	% 10	12
BABESGABETASUN A	Adingabeen Egoitza Harreraren Sarea ¹⁰	1.200	% 100	1.200
	Adingabeen Familia Harreraren Sarea	340	% 100	340
	Emakumeentzako egoitzak	50 ¹¹	% 100	50
	Indarkeria matxista jasan dutenentzako zerbitzuak eta prestazioak	1.900	% 100	1.900
BAZTERKERIA	Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako egoitzetako edo eguneko zerbitzuetako prozesuak (Inklusio Programa).	720 ¹²	% 100	720
	Gazte Estrategiaren esparruan, egoitzetako edo eguneko zerbitzuetako prozesuak	300	% 100	300
				5.226

Erreferentziako arautegia

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta emateko.

¹⁰ Adingabeen Egoitza Harreraren Sareak babesgabetasun sozialeko egoeran dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabide guztiak eta adingabeak hartzeko etxeak barne hartzen ditu.

¹¹ Emakumeentzako egoitzetako erabiltzaileen bolumena. 2023ko abuztuaren 31n

¹² 2024ko maiatzaren 30era arteko erabiltzaileen bolumena. Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak emandako datuak.

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak babesteari buruzkoa.
- 11/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, mendekotasuna duten adinekoentzako egoitzen zerbitzu publikoa arautu duena.
- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautu dituena.
- 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautu dituena.
- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna onetsi duena, baita iradokizunen eta kexen araubidea ere.
- 41/98 Dekretua, martxoaren 10ekoa, adinekoentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzkoa.
- 257/1986 Dekretua, azaroaren 10ekoa, desgaitasuna dutenentzako gizarte-zerbitzuei buruzkoa (otsailaren 8ko 85/1994 Dekretuak aldatu zuen).
- 84/2014 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa, mendeko pertsonentzako egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko araubidea arautu duena.
- 85/2014 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa, gizarte-bazterkeriako egoera aitortzeko prozedura arautu duena.
- 17/2014 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa, mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako egoitzen foru-zerbitzu publikoa jasotzeko araubidea eta zerbitzu horretako egonaldi iraunkorrerako baldintzak arautu dituena.
- 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeriaren Balioespenerako Instrumentua onetsi duena.
- 138/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, egoitzen foru-sarean edo hura ordezkatzan duen arautegian integratutako Barne Araubideko Arautegiaren eredia onetsi duena.
- 96/2005 Foru Dekretua, ekainaren 7koa, desgaitasuna duten pertsonen Bizkaiko Foru Aldundiaren berezko zentroetan, itunpekoetan zein kontratatutakoetan, arreta emateko egoitza-zerbitzuetako plazak lortzeko sistema orokorra arautu duena.
- 27059/2009 Foru Agindua, maiatzaren 29koa, baldintza orokorrak onetsi dituena desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuetako eta eguneko zentroetako plazak eskuratzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren zentroetan eta Aldundiarekin ituna edo kontratua duten zentroetan.
- Bizkaiko Haurrentzako III. Plana.
- Adineko mendekoentzako egoitzen Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-zerbitzuen jardun onerako eskuliburua.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren banakako arreta-planaren eskuliburua.
- Babesik gabeko hurrekin esku hartzeko eskuliburua.

3.3. Zainketen kontrola etxean

Helburua

Etxean egindako zainketen kontrolak mendeko egoeran dauden pertsonak **kalitatezko zainketak** jasotzen dituztela eta beren familia-ingurunean tratu txarreko egoerarik gertatzen ez dela egiaztatu nahi dute. Gainera, zaintzaileen egoera ere ebaluatzen du.

Etxean egindako zainketen kontrolak honako alderdi nagusi hauei erreparatzen die berariaz:

- Aldaketak osasun eta zainketen beharrianetan
- Zainketaren ezaugarriak (zainketa-orduak, laguntza zainketetan edota zainketa eta beste baliabide batzuk konbinatzea)
- Arrisku-faktoreak aurkitzea, edo, hala badagokio, tratu txarren adierazleak (75 urteko edo hortik gorako pertsonengan)
- Zaintzaileen gainkarga-arriskua aztertzea

Arduradunak

Etxean egindako zainketen kontrolaren koordinazioa **Balorazio eta Orientazio Zerbitzuari** dagokio. Bestalde, jarduketa-bloke horren eginkizun operatiboak mendeko egoerak baloratzen dituzten taldeei esleitzen zaizkie. Horrela, bisitak egiten dituzte etxeetara Balorazio eta Orientazio Zerbitzuaren koordinaziopean.

Etxeke egiten diren zainketen azterketa kopurua kalkulatzeko, mendekotasun-egoeran dauden edo desgaitasuna duten Lurraldeko **pertsonen multzoa** kontuan hartzen da, **familia-ingurunean zainketetarako prestazioa badute (FIZPE)**.

Prestazio sozial honen bidez, zaintzaile ez-profesionalek ematen duten laguntzaren gastuei aurre egiten lagundu nahi da. Mendekotasun-gradu guztietan aitor daiteke prestazio hau jasotzeko eskubidea, betiere ezarritako baldintzak betetzen badira.

Zaintzaile ez-profesionalak, bestelako baldintza formalen artean, honako hauek daude: ezkontidea edo izatezko bikotekidea izan behar du, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera; hirugarren mailara arteko ahaidea, odol, ezkontza nahiz adopzio bidezkoa; harrera egiten duen pertsona izatea, mendeko pertsonaren legezko tutorea; edo loturaren bat izatea aldez aurretik adin nagusikoa izateagatik mendeko pertsona izateari utzi zion pertsona hartzeagatik.

Irismena

Plan honen barruan, etxean zainketekin jarraitzeko proposatutako helburua da **FIZPE jasotzen duten pertsonen % 25 aztertzea urtero**, lau urteko aldian emandako prestazioen multzoa berrikusteko asmoz.

Helburu horrekin, Balorazio eta Orientazio Zerbitzuak kolektibo jakin batzuk identifikatzen ditu urtero, eta kolektibo horien zainketa, FIZPEri dagokionez, kontrolatuko da nagusiki urte horretan.

Berariazko jarraipen horiez gain, sakonki aztertuko da zainketen eta zaintzaileen egoera, FIZPE jasotzen duten eta mendekotasun-egoera berrikustea edo Banakako Arreta Plana aldatzea eskatzen duten pertsona guztien kasuan.

Gaur egun, 21.356¹³ pertsonak jasotzen dute familia-ingurunean zainketak egiteko prestazioa. Horrenbestez, 2024. urterako, ezarritako helburua da urtero **5.339 bisita** egitea.

Zainketen kontrola etxean

<i>Kontrolaren irismena 2024an</i>		<i>Onuradunen bolumena</i>	<i>Kontrolaren irismena</i>	<i>Kontrolaren helburua</i>
MENDEKOTASU NA/DESGAITASU NA	FIZPE	21.356	% 25	5.339
				5.339

Erreferentziazko arautegia

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko.
- 152/2016 Foru Dekretua, urriaren 11koa, familia-inguruneke zainketetarako prestazio ekonomikoa arautu duena.
- Zaintzailearen gainkarga antzemateko Gubermanen eskala.
- EAEko adineko pertsonenganako tratatu txarrak prebenitu eta hautemateko prozedura.

¹³ Datuak 2023ko abenduaren 31n eguneratu dira; FIZPEren hartzaileen bolumena.

3.4. Prestazio sozialak aztertzea

Helburua

Prestazio sozialen berrikuspenaren xedea da **aztertzea** prestazioaren onuraduna izaten jarraitzeko eta prestazioak modu egokian erabiltzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen diren:

- Onuradunen berariazko baldintzak aztertzea.
- Emandako prestazio ekonomikoa ezarri moduan erabiltzen den aztertzea, hala dagokien kasuetan¹⁴.

Arduradunak

Prestazio sozialen berrikuspenak barne hartzen du Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dituen prestazio sozial ekonomikoen multzoa, aldizka ordaintzen dena, besteak beste, desgaitasuneko, mendekotasuneko eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden edo arriskuan dauden pertsonen esparruan. Honako xerbitzu hauek arduratzen dira haien jarraipenaz eta berrikuspenaz:

- **Etxeko Arreta Zerbitzua:**
 - **Desgaitasuna duten pertsonak:**

Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, Etxeko Arreta Zerbitzuak **Kotizazio gabeko pentsioa (KGP) du** 15, % 65eko edo hortik gorako desgaitasuna aitortuta duten, eta 65 urte edo gehiago dituzten pertsonentzat, baldin eta, pertsonalki edo haien bizikidetzak unitate ekonomikoak (onuradunarekin errolatuta dauden eta hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna duten pertsonak; ezkontidea edo batasun egonkorra osatzen duen pertsonarekin eta ezkontzaren antzeko afektibitate-harremana dutenarekin bizi direnak), nahikoa errentarik edo diru-sarrerarik ez baditu indarreko arautegian ezarritako baldintzen arabera.

Horrez gain, Zerbitzu honek **alokairuagatik osagarria** ere kudeatzen du, urteko ordainketa bakar gisa, KGPre onuradunak diren pertsonentzat, jabetzan etxebizitzarik ez badute; etxebizitza alokatzeko urtebete baino gehiagoko kontratu baten titularrak badira, ohiko etxebizitza gisa; eta etxebizitza horren jabearekin hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna ez bada, ezkontidea ez bada, batasun egonkorra osatzen ez bada harekin, eta ezkontzaren antzeko afektibitate-harremana duenarekin bizi ez bada.

Azkenik, Etxeko Arreta Zerbitzuak **MIGILEtik eratorritako prestazio batzuk (13/1982 Legea) kudeatzen ditu desgaitasuna dutenentzat**¹⁶. Aldizkako prestazio ekonomikoa

¹⁴ KGP, MIGILE eta FIZPEren gaur egungo arautegi arautzailean ez da jasotzen pentsio eta prestazioei emandako erabileraren berrikuspena, bere izaera sozialak xedea islatzen duelako. Prestazio horiei dagokienez, arautzen dena da arautegi bakoitzak eskatutako baldintzak mantentzen diren egiaztatzea, onartutako pentsioa edo prestazioa jasotzen jarraitzeko; bestela, dagozkion berrikuspenak egingo dira.

¹⁵ KGP, 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren testu bategina onetsi duenak, araututakoa.

¹⁶ 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeko duten eskubideen Lege Orokorraren Testu Bategina onetsi duenak, MIGILEren laguntzak arautu ditu, eta laguntza horiek aldizka berrikusiko dira, onuradunek horiek onartuak izateko eskatu zaizkien baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko. Hala ez bada, eskubidea amaituko zaie eta behar ez bezala jaso dituzten kopuruak itzuli beharko dituzte. 2024. urteari dagokionez, laguntza horien hartzaileen % 100aren egoera berrikustea xedatu da.

da, oinarritzko beharrianei erantzuteko, hala nola, elikadura, jantziak eta desgaitasuna duten pertsonentzako gela, lan-jarduerak garatzeko ezintasunagatik, Gizarte Segurantzaren aplikazio-esparrutik kanpo daudenak.

- **Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak:**

Mendekotasunaren esparruan, lehendabizi, **Familia-inguruko zainketetarako prestazioa (FIZPE)**¹⁷ onartu da.

Era berean, Etxeko Arreta Zerbitzuak **mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLP)**¹⁸ kudeatzen du, egoitza bati modu pribatuan emandako arretaren ondoriozko gastuak estaltzera begira, aldi baterako egonaldia izan edo etengabekoa izan.

Prestazio hori bakarrik aitortuko da, baldin eta pertsona hori egoitzako foru-zerbitzu publikoko plazaren onuradun bada, eta ezin bada zerbitzuan sartu.

Halaber, Zerbitzu honek **Laguntzaile pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE)**¹⁹ kudeatzen du, eta laguntzaile pertsonala kontratatzearen ondoriozko gastuak ordaintzea du xede. Pertsonaren mendekotasun-mailaren arabera, laguntzaile horrek astean gutxieneko ordu kopuru batean lan egingo du, eta pertsona horri lagunduko dio heziketa eskuratzen, laneratzen edo, mendekotasuna aintzatetsita, eguneroko oinarritzko jardueretan autonomoago izaten.

- **Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua:**

- **Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden edo arriskuan dauden pertsonak:**

Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak **Gizarte ongizateko funtsa (GOF)**²⁰ kudeatzen du, dagokion autonomia-erkidegoko arautegian araututa dagoena, eta aldizkako prestazio ekonomikoz osatuta dagoena. Adinagatik edo ezgaitasunagatik lantokira joan ezin diren pertsonen ematen zaie, bestelako diru-sarrerarik ez badute bizitzaren oinarritzko beharrianei erantzuteko.

Halaber, Zerbitzu honek **Gizarteratzeko laguntza bereziak (GLB)**²¹ kudeatzen ditu. Aldizkako laguntza ekonomikoa dira eta beraien helburua oinarritzko beharrianei lotutako gastuak eta gizarteratzeko edota laneratzekeko prozesuek sortutako gastuak estaltzea da. 2018ko ekitaldian, laguntza horiek aldatu egin ziren, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 79/2018 Foru Dekretua zela bide. Aldaketa horren funtsezko helburuak honako hauek izan ziren:

¹⁷ Prestazio horiek, Bizkaiko Foru Aldundiaren 152/2016 Foru Dekretuak, urriaren 11koak, familia-inguruko zainketetarako prestazio ekonomikoa erregulatu duenak, arautu ditu.

¹⁸ ZLPak urriaren 31ko 157/2016 Foru Dekretuan legeaz aztertzen dira. Horren bidez, egoitza-zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautu da.

¹⁹ 103/2013 Foru Dekretuak, uztailaren 23koak, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautu duenak (eta 44/2015 Foru Dekretuak, martxoaren 17koak, aldatuak) prestazio horri buruzko arautegia jasota du.

²⁰ Gizarte Ongizateko Funtsak Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuan hizpatutakoari jarraitzen dio. Horren bidez, EAEko gizarte Ongizateko Funtsaren pentsioak arautu dira, eta 38/1988 eta 163/1990 Dekretuek aldatu dute.

²¹ GLBak hemen jaso dira: 60/2011 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Gizarteratzeko Laguntza Berezia arautu duena, abenduaren 13ko 207/2011 Foru Dekretuak partzialki, eta ekainaren 19ko 79/2018 Foru Dekretuak aldatua.

- o Bizkaiko Foru Aldundiaren esparruan gizarteratzearen arloko antolaketa-aldaketen laguntzaren arauketa egokitzea.
- o Laguntza bereziaren benetako lotura, gizarteratze-arloan eskumena duen zuzendaritzan artatutako pertsonen kasuan, bigarren mailako arreta-prozesuak egonda arlo horretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa arautu duen urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 19. eta 20. artikuluetan xehatutako oinarritzko esku-hartze prozeduraren arabera, funtsean, erreferentziazko profesionalaren figurari eta arreta pertsonalizatuko planari dagokienez.
- o Aurrekoarekin bat etorritz, salbuespen gisa, zenbait pertsonak beren gizarteratze-prozesu espezializatuaren barruan izan ditzaketen berariazko beharriari egokitzea laguntza.

Gainera, Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak **Gizarteratze Prozesu Espezializatu**ei (GPELP)²² lotutako prestazioa kudeatzen du.

Irismena

3.4.1. Etxeko Arreta Zerbitzua:

Etxeko Arreta Zerbitzuak, urtero, eman dituen eta indarrean jarraitzen duten prestazio sozialak berrikusten ditu, erregulazio- eta garapen-arautegiaren arabera. Horrela, jarduketako bloke honetan, kontrolaren irismenak honako ezaugarri hauek ditu, onuradunen tipologia eta prestazio mota jakinaren arabera:

- **Desgaitasuna duten pertsonak eta 65 urteko edo hortik gorako pertsonak:**

KGP eta MIGILERi 23 dagokienez, berrikuspena egiaztatzean datza onuradunak edo bere bizikidetzaren unitateko pertsonak eskubide hori aitortu zieten inguruabarrak aldatu dituzten. Horretarako, ikusi egiten da onuraduna senide berdinekin bizi den (errolda kolektiboaren bidez egiaztatuz), eta baliabide edo sarrera pertsonalak (legez baimendutako muga pertsonalarekin alderatzen dira) zein bizikidetzaren unitate ekonomikoarenak (bizikidetzaren unitate ekonomikoaren muga) berdinak diren.

Halaber, aurreko ekitaldia zuzen likidatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eskatzen da (herentzien eskriturak, salerosketenak, nominak, lan-kontratuak, erroldatze-ziurtagiriak, alta- eta baja-datak adierazita, eta abar), eta kasuan kasuko aldaketa- edo iraungitze-ebazpenak ematen dira, okerreko kobrantzak edo bere aldeko atzerapenak onartuta edo ez.

Alokairuagatikiko osagarriari dagokionez, urtean behin ordaintzen dela jakinik, Etxeko Arreta Zerbitzuak hura onartu aurretik berrikusi behar ditu KGPre onuradunak

²² 2023ko ekainaren 1ean onetsi zen Gizarteratze Prozesu Espezializatu

²³ 357/1991 Errege Dekretua, martxoaren 15koa, abenduaren 20ko 26/1990 Legea, Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko prestazioei buruzkoa, garatu duena. 16. artikulua: "Onuradunak bizikidetzaren unitate ekonomikoaren diru-sarrera edo errenta konputagarrien aitortzea behar dute, aurreko urtekoak direnena, (...) urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan". 25. artikulua: "Aurreko urtean jasotako pentsioaren zenbatekoen erregularizazioa, Errege Dekretu honen 16.2. artikuluan jasota dauden baliabideen urteko kontrolaren ondorioz gerta daitekeena, urte bakoitzaren urriaren 31rako eginda egon behar da".

egiaztatutako alokairu-kontratuaren indarraldia eta araudi arautzaileak eskatutako gainerako baldintzak. Berrikuspena, hortaz, osagarria eman eta ordaindu aurrekoa da.

- **Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak:**

Etxeko Arreta Zerbitzuak egindako **FIZPEren** berrikuspenak onuradunen ahal ekonomikoa eta **osagarri kengarriak** jasotzen dituzten barne hartzen ditu, nagusiki.

Prestazio horren berrikuspena hura jasotzen duten **pertsonen % 100ei** egingo zaie. Berrikuspenak pertsona horien **ahal ekonomikoa eta osagarri kengarriak** barne hartzen ditu.

ZLPei dagokienez, nabarmentzekoa da prestazio hori jasotzeak ez dituela behartzen onuradunak modu iraunkorrean egoitza pribatu batean bizitzera, baizik eta han bizi diren egunen kopurua libreki hautatzeko ahalmena izatea. Hala badagokie, beren etxean edo bestelako tokietan ere egon daitezke tarteka.

Horregatik, Plan honetan barne hartzen diren **ZLPri** buruzko datuetan ez da islatzen prestazio horren onuradunen kopurua, baizik eta Gizarte Ekintza Sailak xede horretarako ezarritako epearen barruan kasuan kasuko fakturak aurkeztu ostean **egindako ordainketen kopurua**. Horrek ekartzen du ordainketak ematen diren unean bertan berrikustea, faktura horiek aztertuz.

Azkenik, **Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoari (LPPE)**²⁴ dagokienez, honako honetan datza berrikuspena: behin ekitaldia itxita, pertsona fisikoari edo enpresa bati, kontratatutako laguntza pertsonaleko zerbitzuarengatik egindako ordainketen egiaztagiriak eskatzea.

Halaber, elkarrizketa pertsonala egiten da, eskatzen diren baldintzak mantentzen direla egiaztatzeko. Aldaketaren bat sortu bada, Bizitza Independenteterako Banakako Plana ere aldatuko da.

3.4.2. Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua:

Era berean, Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak, urtero, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden edo arriskuan dauden pertsonen esparruan eman dituen **prestazio sozialak** aztertzen ditu. Kontrol horren irismenak honako alderdi hauek barne hartzen ditu:

- **Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden edo arriskuan dauden pertsonak:**

Gizarte Ongizateko Funtsari (GOF) eta Gizarteratzeko Laguntza Bereziei (GLB) lotutako prestazioen jarraipenerako, hartzaileen baldintza pertsonalak egiaztatzen dira, onuradun-egoera mantentzeko, baita haien ahal ekonomikoa aztertzeko ere.

Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden edo arriskuan dauden pertsonen esparruan, gutxi gorabehera **760 pertsonak jasotzen dituzte** prestazio sozialak (300 pertsonak gizarte-ongizateko funtsa, 10 pertsonak, gizarteratzeko laguntza bereziak eta 450 pertsonak gizarteratze-prozesu espezializatuei lotutako prestazioa).

Zentzu horretan, **Gizarte Ongizateko Funtsa jasotzen duten pertsonen % 100en** egoera berrikustea ezarri da, **Gizarteratzeko Laguntza Berezien titularren % 100ena**

²⁴ 103/2013 Foru Dekretuaren 19. artikulua, uztailaren 23koa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautu duena, eta aurrekoa aldatu duen 44/2015 Foru Dekretuak, martxoaren 17koak, daukan artikulua bakarren bidez idatzia. Artikulu horretan, oro har, ezarri denez, urtero jarraipen-elkarrizketa bat egingo da, eta prestazio hori jasotzen duen pertsonaren egoera mantentzearen aldeko txostena egingo da.

eta Gizarteratze Prozesu Espezializatuari Lotutako Prestazioaren onuradunen % 20rena.

Prestazio sozialak aztertzea

<i>Berrikuspenaren irismena 2024an</i>		<i>Onuradunen bolumena²⁵</i>	<i>Berrikuspenaren irismena</i>	<i>Berrikuspenaren helburua</i>
DESGAITASUN A DUTEN EDO ≥ 65 URTE DITUZTEN PERTSONAK	KGP	7.845	% 100	7.845
	Alokairuagatiko osagarria	881	% 100	881
	MIGILE	64	% 100	64
MENDEKOTAS UNA/ AUTONOMIA	FIZPE	21.356	% 100	21.356
	ZLP	25.389	% 100	25.389
	LPPE	72	% 100	72
BAZTERKERIA ²⁶	GOF	300	% 100	300
	GLB	19	% 100	10
	GPELP	450	% 20	90
				56.007

Erreferentziako arautegia

- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko.
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzako Lege Orokorren testu bategina onetsi duena.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, Desgaitasun duten Pertsonen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onetsi duena
- 357/1991 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa, abenduaren 20ko 26/1990 Legea (Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko prestazioei buruzkoa) garatu duena.
- 129/1986 Dekretua, maiatzaren 26koa, Eusko Jaurlaritzarena, EAEn Gizarte Ongizateko Funtzaren pentsioak arautu dituena.
- 157/2016 Foru Dekretua, urriaren 31koa, egoitza-zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa arautu duena.
- 152/2016 Foru Dekretua, urriaren 11koa, familia-inguruneke zainketetarako prestazio ekonomikoa arautu duena.

²⁵ Etxeko Arreta Zerbitzuak emandako datuak 2024ko maiatzaren 30ean.

²⁶ Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak emandako datuak, 2023ko martxoaren 30ean.

- 103/2013 Foru Dekretua, uztailaren 23koa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautu duena, eta 44/2015 Foru Dekretuak, martxoaren 17koak, aldatu duena.
- 60/2011 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Gizarteratzeko Laguntza Berezia arautu duena, eta 207/2011 Foru Dekretuak, abenduaren 13koak, aldatu duena.
- 11421/2003 Foru Agindua, abuztuaren 14koa, gaixotasunagatiko edo baliaezintasunagatiko Gizarte-ongizateko Funtsa eskuratzeko baldintzak arautu dituena.

3.5. Dirulaguntzen berrikuspena

Helburua

Foru Sektore Publikoaren barruan ez dauden eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren kontura diren pertsona fisiko edo erakundeei emandako dirulaguntzak edo laguntzak berrikustea, jasotako finantzazio publikoa dirulaguntzaren edo laguntzaren xederako aplikatu dela bermatzeko helburuarekin.

Arduradunak

34/2010 Foru Dekretuak, martxoaren 23koak, Dirulaguntzen arautegia onetsi duenak²⁷, 69. artikuluan ezarri du dirulaguntzak ematen dituzten organoek²⁸ **dirulaguntzak egiaztatu beharko dituztela agirien bidez.**

Halaber, Foru Dekretu bereko 70. artikulua ezarri duenez, dirulaguntza ematen duen organoaren betebeharra da **urtero jarduketa-plan bat prestatzea, onuradunek diruz lagundutako jarduerak egiten dituztela egiaztatzeko.**

Artikulu horiek direla bide, zerbitzu eta prestazio sozialen esparruan, dirulaguntzak eman ditzaketen, eta, beraz, haiek aztertu behar dituzten zerbitzuak adierazten dira:

– **Etxeko Arreta Zerbitzua:**

Etxeko Arreta Zerbitzuak dirulaguntzak kudeatu eta ematen ditu, legez ezarritako honako prozedura hauen bidez²⁹:

- **Norgehiagoka deialdiak:**

Norgehiagoka prozeduratzat jotzen da, eta prozedura horren bidez dirulaguntzak aurkeztutako eskaerak alderatuz ematen dira oinarri arautzaileetan eta deialdian alde aurretik finkatutako balorazio-irizpideen arabera hurrenkera ezartzeko, eta deialdian erabilgarri dagoen kredituaren barruan finkatutako mugarekin, aipatutako irizpideak aplikatuz baloraziorik onenak lortu dituztenak esleitzen.

- **Lehia askeko deialdiak:**

Salbuespenezko metodoa da, eta dirulaguntzaren xede eta izaeragatik, norgehiagoka bidez izapidetu ezin denean gertatzen da.

²⁷ 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, Dirulaguntzei buruzko arautegia onetsi duena, Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatuz.

²⁸ 5/2005 Foru Arauaren 2.1. artikulua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duena: "Dirulaguntzat jotzen da (...) pertsona publiko edo pribatuen alde (...) egindako diruzko edozein erabilera, betiere honako baldintza hauek betetzen baditu:

a) Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematen da.

b) Helburu jakin bat betetzen bada, proiektu bat gauzatzen bada, jarduera bat egiten bada, portaera ona izaten badu, jadanik egindakoak edo egiteko daudenak, edo egoera bat gertatzen bada. Horrela, onuradunak ezarri diren betebeharrak materialak eta formalak bete beharko ditu.

c) Finantzatutako proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburua izatea onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat, edo xede publiko bat sustatzeko jarduera bat, bultzatzea".

²⁹ 5/2005 Foru Arauaren 20. artikulua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duena.

Emate-mekanismo horren bidez, eskaerak jasotzen diren heinean banatzen dira funtsak, betiere deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte, eta aurrekontu-zuzkidurek hala ahalbidetzen duten artean.

- **Dirulaguntza izendunak³⁰:**

Dirulaguntza horiek organo publiko batek zuzenean emandako dirulaguntza-modalitate bat dira. Horri dagokionez, **diruz lagun daitezkeen hitzarmenak** dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan³¹ norbaiten izenean aurreikusita dauden dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

- **Auditoretza Zerbitzua:**

Etxeko Arreta Zerbitzuak egin behar duen berrikuspen-lanaz gain, Auditoretza Zerbitzuak, bere eskumeneko kudeaketari laguntzeko jarduketei dagokienez, urtero, auditoretza-zerbitzua ere eskaintzen die Bizkaiko Foru Aldundiaren zuzendaritzari. Xede horren barruan zenbait modalitate daude, eta horien artean ondorengoak gailentzen dira:

- **Bizkaiko Foru Aldundiaren organo emaileek dirulaguntzak emateko prozeduretan legezketasuna betetzen duten berrikustea³²:**

Dirulaguntzak emateari buruzko prozeduretan legezketasuna betetzen dela kontrolatzeko, honako alderdi hauek egiaztatzen dira:

- Espedientea onartzeko ematen dioten organoaren eskumena.
- Aurrekontuan kreditua dagoela eta proposatutako kreditua egokia dela egin nahi den gastu edo betebeharraren izaera kontuan hartuta.
- Urte anitzeko konpromisoak hartzen diren kasuetan, arlo horretan indarrean dauden xedapenetan esandakoa betetzen duela egiaztatuko da.
- Eskatutako dokumentazioa egokia izatea prozedura bakoitzerako, eta espedientean funtsezko baldintza edo izapiderik ez faltatzea.
- Betebeharrak eta ordainketak dirulaguntza arautzen duen xedapenari edo arautegiari egokitzen direla, eta onuradunak dagokion betebeharra bete duela egiaztatzen dela.
- Auditoretza Zerbitzuak, gainera, bere eginkizunaz baliatzeko, bidaltzen dizkieten espedienteak zuzen izapidetzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste argibide, txosten edo agiri eskatu ahalko ditu.

³⁰ 5/2005 Foru Arauaren 20.2. artikulua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen diru laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duena. "Honako dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak.

b) Dirulaguntzaren emakida edo zenbatekoa lege-mailako arau batek ezarrita badago, araudi propioaren arabera aplikatu beharreko emakida-prozedurari jarraituz.

c) Salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko dirulaguntzak".

³¹ 5/2005 Foru Arauaren 26.1. artikulua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen diru laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duena.

³² 5/2006 Foru Arau Orokorra, abenduaren 29koa, aurrekontuei buruzkoa.

Prozedurarekin amaitzeko, txosten bat egiten da, eta horren bidez, dirulaguntza ematen duen organoak egindako jarduketa baloratuko du. Bestalde, dirulaguntza izendunak ez dira sartzen auditoretza-prozedura horren aplikazio-esparruan.

- **Finantza-kontrola³³:**

Auditoretza egiteko metodo horren helburua da honako alderdi hauek egiaztatzea:

- Onuradunak dirulaguntzak era egoki eta zuzenean eskuratu dituen.
- Onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntza kudeatu eta aplikatzeko betebeharrak betetzen dituzten.
- Onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntzak era egoki eta zuzenean justifikatu dituzten.
- Onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako justifikazioaren arabera, dirulaguntzarekin finantzatu diren eragiketen errealitatea eta erregularatasuna.
- Diruz lagundutako jardueraren finantzazio egoki eta zuzena.

Auditoretza-prozesu horren ondorioz, azken txosten bat egin beharko da, eta hor, prestazioaren pertsonak edo erakunde onuradunak egindako jarduketari buruzko iritzia emango da.

Irismena

3.5.1. Etxeko Arreta Zerbitzua:

Arestian adierazi denez, 34/2010 Foru Dekretuak, martxoaren 23koak, dirulaguntzei buruzko arautegia onetsi duenak, ezarri du urtero dirulaguntza guztien egiaztagiria eta pertsona edo erakunde onuradunek **diruz lagundutako jarduerak egiten dituztela egiaztatu behar direla, agirien bidez.**

Modu horretan, 2024. urtean, aurreko ekitaldian **emandako dirulaguntza guztiak (% 100)** aztertuko dira, modalitate guztietan, eta dirulaguntzen honako berrikuspen honen irismena definituko da, emandako dirulaguntzen kopurua eta haien zenbateko guztia adieraziz:

- **Norgehiagoka deialdiak:**

Dirulaguntza horien arrazoiengatik aurkeztu beharreko justifikazioaren metodoa eta edukia desberdina da dirulaguntzaren kopuruaren arabera.

Horrela, **60.000 € baino gutxiagoko zenbatekoarekin diruz lagundutako erakundeek** kontu justifikagarria aurkeztu behar dute, gastuen frogagiriekin batera. Etxeko Arreta Zerbitzua berrikusiko du, eta horren ostean, likidazio-akta egingo du³⁴.

Bestalde, **60.000€ baino gehiagoko dirulaguntza jasotzen duten erakundeek** kontu justifikagarria aurkeztu behar dute, auditorearen txostenarekin batera (Ogasun eta Finantza Sailaren foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduan ezarritako arauen arabera egindakoa). Txosten hori Etxeko Arreta Zerbitzuaren

³³ 5/2006 Foru Arau Orokorraren 147.1.d). artikulua, abenduaren 29koa, Aurrekontuei buruzkoa.

³⁴ 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikulua, martxoaren 23koa, Dirulaguntzei buruzko arautegia onetsi duena.

langileek aztertuko dute, eta likidazio-aktak egingo dituzte. Hor, zuzenketak, gomendioak, itzultzeak eta bidezkoak diren gainerako jarduketak barne hartuko dira³⁵.

2023. urtean, Etxeko Arreta Zerbitzuak bi norgehiagoka dekretu izapidetu zituen, eta **1.478.000,00 euroko** gastua izan zuen horregatik. Hala, 2024an zerbitzu horrek beste bi dekretu egingo ditu, eta horrek **1.479.057,72 € berrikustea** ekarriko du.

- **Lehia askeko deialdiak:**

Mota horretako dirulaguntzen onuradunek kontu justifikagarri bat aurkeztu behar dute urtero, gastuen frogagiriekin batera. Horrela, Etxeko Arreta Zerbitzuaren langileen aztertuko dituzte, eta egiaztapen-aktak egingo dituzte. Hor, hala badagokio, zuzenketak, gomendioak, itzultzeak eta bidezkoak diren gainerako jarduketak barne hartuko dira³⁶.

Zerbitzu honek, 2023ko ekitaldian, lehia askeko bi Dekreturen barruan kokatuta zeuden dirulaguntzak izapidetu zituen. Zenbatekoa, guztira, **1.332.727,91 eurokoa** izan zen. Hala, 2024an zerbitzu horrek beste bi dekretu egingo ditu, eta horrek **1.385.708,67€ berrikustea** ekarriko du.

- **Dirulaguntza izendunak:**

Erakunde onuradunek kontu justifikagarria aurkeztu behar dute urtero, auditorearen txostenarekin batera (Ogasun eta Finantza Sailaren foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduan ezarritako arauen arabera egindakoa). Txosten hori Etxeko Arreta Zerbitzuaren langileek aztertuko dute, eta egiaztapen-aktak egingo dituzte. Hor, zuzenketak, gomendioak, itzultzeak eta bidezkoak diren gainerako jarduketak barne hartuko dira³⁷.

2023. urtean, Etxeko Arreta Zerbitzuak 38 dirulaguntza izendun eman zituen. Zenbatekoa, guztira, **12.706.596,00 eurokoa** izan zen. Hala, 2024. urtean, zerbitzu horrek beste 38 dirulaguntza izendun emango ditu, eta horrek **13.699.000,00€ berrikustea** ekarriko du.

3.5.2. Auditoretza Zerbitzua:

Auditoretza Zerbitzuak Gizarte Ekintza Sailaren mendeko zentroetan emandako **zortzi dirulaguntza** berrikusi ditu **Auditoretzen eta Kudeaketan Laguntzeko Jarduketan 2024ko Urteko Planaren barruan**. Guztira, **8.035.194,65€** izan dira.

Dirulaguntzen berrikuspena

<i>Berrikuspenaren irismena</i> 2024an	<i>irismena</i>	<i>Zenbakia</i>	<i>Zenbatekoa</i>	<i>Berrikuspenaren irismena</i>	<i>Berrikuspenaren helburua</i>
Norgehiagoka deialdiak		2	1.479.057,72 €	% 100	1.479.057,72€
Lehia askeko dekretuak		2	1.385.708,67 €	% 100	1.385.708,67 €
Dirulaguntza izendunak		38	13.699.000,00 €	% 100	13.699.000,00 €
Auditoretzen urteko plana		1	3.294.775,00 €	% 100	3.294.775,00 €

³⁵ 34/2010 Foru Dekretuaren 59. artikulua, martxoaren 23koa, Dirulaguntzei buruzko arautegia onetsi duena.

³⁶ 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikulua, martxoaren 23koa, Dirulaguntzei buruzko arautegia onetsi duena.

³⁷ 34/2010 Foru Dekretuaren 59. artikulua, martxoaren 23koa, Dirulaguntzei buruzko arautegia onetsi duena.

Dirulaguntzen berrikuspena

<i>Berrikuspenaren 2024an</i>	<i>irismena</i>	<i>Zenbakia</i>	<i>Zenbatekoa</i>	<i>Berrikuspenaren irismena</i>	<i>Berrikuspenaren helburua</i>
Kudeaketari jarduketak	laguntzeko	6	4.740.419,65 €	% 100	4.740.419,65 €
					24.598.961,04 €

Erreferentziazko arautegia

- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina, Bizkaiko Foru Aldundiaren auditoretza bidezko kontrola arautu duena 146-152 artikuluetan.
- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duena (otsailaren 29ko 2/2012 Foru Arauak berritu du).
- 169/2014 Foru Dekretua. Horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko arautegi orokorra onartu da, aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina garatu duena.
- 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, dirulaguntzei buruzko Araudia onetsi duena, Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatuz.
- 945/2011 Foru Agindua, apirilaren 15ekoa, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuarena. Horren bidez onetsi dira kontu-auditoreek dirulaguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egitean jarduteko bete behar dituzten arauak, foru-sektore publikoaren esparruan betiere.

4. Planaren gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa

Gauzatzea

Ekintza Plan hau 2024. urtean zehar garatuko da, eta haren berariazko helburuak, xedatutako jarduketa-bloke bakoitzerako garatutako jardueren **urteko ebaluazioaren** arabera aztertuko dira.

2024ko Ekintza Planean xedatutako bost jarduketa-blokeek **berariazko plana** dute, eta jarduketan eta erabili beharreko metodologia eta ikuskapen-protokoloen xehetasuna ezartzen du ikuskapen, kontrol edo azterketa mota bakoitzerako.

Honako hauek dira xedatutako berariazko ikuskapen-, kontrol- eta azterketa-planak gauzatu, jarraitu eta ebaluatzen dituztenak:

Jarduketa-blokeak	Ikuskapen, kontrol edo berrikuspen mota	Emaitzak / Mekanismoak	Zerbitzu arduradunak
<i>Gizarte-zerbitzuen zentroen ikuskaritza eta kontrola</i>	<ul style="list-style-type: none"> Datu-bilketa Aurrez aurreko bisitak 	<ul style="list-style-type: none"> Ikuskapen-aktak Ikuskapenaren amaierako txostenak Zirkularrak eta jarraibideak Jardunbide egokiko arautegiari 	<ul style="list-style-type: none"> Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua
<i>Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan</i>	<ul style="list-style-type: none"> BAPen azterketa Azterketa medikoak Gizarte-heziketako Esku-hartze Planen ikuskapena Gizarte azterketa eta analisisa 	<ul style="list-style-type: none"> Arreta Planak aldatzeko proposamena Baliabideak eta zerbitzuak onuradunen beharrei egokitzea 	<ul style="list-style-type: none"> Zentroen zerbitzua Umeen Zerbitzua Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua Indarkeria
<i>Zainketen kontrola etxean</i>	<ul style="list-style-type: none"> Bisitak Telefono bidezko jarraipena Barne-azterketak 	<ul style="list-style-type: none"> Emandako baldintzak eta zainketak betetzen direla egiaztatzea Arautegiari egokitzeko gomendioak/proposamenak Zainketari laguntzeko 	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzua
<i>Prestazio sozialak aztertzea</i>	<ul style="list-style-type: none"> Espedienteak aztertzea Datu-trukea / Elkarreragingarritasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Helburuen betetzearen egiaztapena Laguntzak emateko arautegiari edo prozedurei egokitzeko eta horiek hobetzeko gomendioak. 	<ul style="list-style-type: none"> Etxeko Arreta Zerbitzua Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua
<i>Dirulaguntzen berrikuspena</i>	<ul style="list-style-type: none"> Justifikazio-kontuak berrikustea Auditoretza-lanak 	<ul style="list-style-type: none"> Diruz lagundutako gastuen justifikazioa egiaztatzea Laguntzak emateko arautegiari edo prozedurei egokitzeko eta horiek hobetzeko gomendioak. 	<ul style="list-style-type: none"> Etxeko Arreta Zerbitzua Auditoretza Zerbitzua

Jarraipena eta ebaluazioa

2024ko martxotik ekainera (lau hilabete) Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorrarekin (2020-2023) lotutako 2023 Ekintza Planaren ebaluazioa egin da, eta haren ondorioak 2024ko Ekintza Plan honetan txertatu dira.

5. Baliabideen erabilera

Jarraian, 2024ko Ekintza Planean xedatutako jarduketa-bloke bakoitzean garatzeko xedatu diren baliabideak zehaztuko ditugu:

1. Gizarte-zerbitzuen zentroen ikuskaritza eta kontrola

- Ikuskapen- eta kontrol-zerbitzua:
 - Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuko langileak
- Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua:
 - Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuko langileak

2. Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan

- Zentroetako Arreta Zerbitzua:
 - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arretarako zentroetan egindako arretaren eta zainketen ikuskapena zentroen zerbitzuaren esku egongo da, gutxienez, honako figura hauez osatuta dauden **barne-talde**en bidez:
 - **Mendekotasun-egoeran dauden adinekoen** esparruan: Atalburua, ataleko bi mediku, eta Banakako Arreta Planak ikuskatzeko beharrezkoa den administrazio-laguntza.
 - **Desgaitasuna** dutenen esparruan: Atalburua, medikua, arloko psikologoa eta Banakako Arreta Planak ikuskatzeko beharrezkoa den administrazio-laguntza.
 - Horrez gain, Banakako Arreta Planek ikuskapena osatzen duten **azterketa medikoak** eta **gizarte-analisiak** gauzatzeko **kanpoko kontratazioa** egin da.
- Umeen Zerbitzua:
 - Haur eta nerabeentzako egoitza-baliabideetan egindako Arretaren eta Zainketen Kontrola Umeen Zerbitzuak egingo du, gutxienez, honako figura hauez osatuta dauden **barne-talde**en bidez: Zerbitziburua, hiru atalburu, kasuak koordinatzen dituzten langileak, gizarte-hezitzaileak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Zerbitzu eta Prestazioen Programetako langileak, eta Gizarte-heziketako Eskuhartze Planak ikuskatzeko beharrezkoa den administrazio-laguntza.
- Indarkeria matxistatik babesteko eta familiei laguntzeko zerbitzua:
 - Indarkeria matxistaren aurka babesteko eta familiei laguntzeko zerbitzuko bertako langileak (gizarte-langileak eta psikologoak).
- Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua:
 - Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuko bertako langileak (gizarte-langileak)

3. Zainketen kontrola etxean

- Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzua:

- Bizkaiko Foru Aldundiko baliabide propioak, Balorazio eta Orientazio Zerbitzuko lau pertsonako talde baten bidez.
- Horrez gain, etxean bisitak egiteko kanpoko kontratazioa egin da, azterketa medikoak gauzatzeko eta gizarte-langilea baloratzeko, etxean zainketen jarraipena egin dadin.

4. Prestazio sozialak aztertzea

– Etxeko Arreta Zerbitzua:

- Etxeko Arreta Zerbitzuko baliabide propioak, honako hauek jasotzen dituzten pertsonen baldintzak betetzen direla egiaztatze bidez: KGP, etxebizitza alokairuagatik osagarria, MIGILE, FIZPE, ZLP eta LPPE.

– Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua:

- Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuko langileak.

5. Dirulaguntzen berrikuspena

– Etxeko Arreta Zerbitzua:

- Etxeko Arreta Zerbitzuko baliabide propioak, dirulaguntzaren edo laguntzaren xedez jasotako finantzazio publikoaren jarraipena egin dezaketen barne-taldeen bidez.

– Auditoretza Zerbitzua:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren baliabide propioak, agindutako kanpoko lanen jarraipena eta hobetze-proposamenak egin ditzaketen Auditoretza Zerbitzuko barne-taldeen bidez.
- Dirulaguntzak aztertzeko auditoreen kanpoko kontratazioa aurreikusita dago.

Jarduketa-blokeak	Giza-baliabide eta baliabide teknikoen laburpena
<i>Gizarte-zerbitzuen zentroen ikuskaritza eta kontrola</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Norberaren langileak
<i>Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Norberaren langileak • Kanpoko kontratazioa: azterketa medikoak, psikologikoak eta sozialak
<i>Zainketen kontrola etxean</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Norberaren langileak • Kanpoko kontratazioa: bisitak etxean
<i>Prestazio sozialak aztertzea</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Norberaren langileak • Elkarreragingarritasuna
<i>Dirulaguntzen berrikuspena</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Norberaren langileak • Kanpoko auditoretzak

6. Kontrol-koadroa

Jarraian, Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorrekin (2024-2027) lotutako 2024 Ekintza Planean xedatutako jarduketako blokeetarako zehaztu diren helburuak aurkeztuko ditugu, labur-labur:

		1. Gizarte-zerbitzuen zentroyen ikuskaritza eta kontrola			2. Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan			3. Zainketen kontrola etxean			4. Prestazio sozialak aztertzea			5. Dirulaguntzen berrikuspena		
		Zentroyen bolumena	Ikuskaritza irismena	Ikuskaritza helburua	Pertsonen bolumena	Berrikuspenaren bolumena	Kontrolaren helburua	Pertsonen bolumena	Kontrolaren irismena	Kontrolaren helburua	Pertsonen bolumena	Berrikuspenaren irismena	Berrikuspenaren helburua	Zenbatekoa (€)	Berrikuspenaren irismena	Berrikuspenaren helburua (€)
ADINEKOA K	Adinekoentzako egoitzak	155	% 100	156	4.951	% 5	248									
	Etxebizitza	49	% 100	49	1.307	% 5	65									
	Babespeko aptak.	7	% 100	7												
	Adinekoentzako	64	% 100	64												
DESGAITA SUNA DUTEN PERTSONA K	Zentro okupazionalak				1.294	% 10	129									
	Mend. pers. egoitzak				1.488	% 10	149									
	Mend. pers. eguneko				1.125	% 10	113									
	Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitzak				121	% 10	12									
	Haurren garapenerako eta arreta goiztiarrerako zentroak	54	% 100	54												
	KGP										7.845	% 100	7.845			
	Etxebizitza alokairuagatik										881	% 100	881			
	MIGILE										64	% 100	64			
MENDEKO TASUNA/ AUTONOMIA	FIZPE							21.356	% 25	5.339	21.356	% 100	21.356			
	ZLP										25.389	% 100	25.389			
	LPPE										72	% 100	72			
	Norgehiagoka													1.479.057,72 €	% 100	1.479.057,72 €
	Lehia askea													1.385.708,67 €	% 100	1.385.708,67 €
	Dirul. Izendunak													13.699.000,00	% 100	13.699.000,00

		1. Gizarte-zerbitzuen zentroyen ikuskaritza eta kontrola			2. Arretaren eta zainketen kontrola zentroetan			3. Zainketen kontrola etxean			4. Prestazio sozialak aztertzea			5. Dirulaguntzen berrikuspena		
		Zentroyen bolumena	Ikuskapenaren irismena	Ikuskapenaren helburua	Pertsonen bolumena	Berrikuspenaren bolumena	Kontrolaren helburua	Pertsonen bolumena	Kontrolaren irismena	Kontrolaren helburua	Pertsonen bolumena	Berrikuspenaren irismena	Berrikuspenaren helburua	Zenbatekoa (€)	Berrikuspenaren irismena	Berrikuspenaren helburua (€)
BABESGAB ETASUNA	Adingabeentzako Egoitza Harreraren	58	% 100	58	1.200	% 100	1.200									
	Adingabeentzako Familia Harreraren				340	% 100	340									
	Emakumeentzako egoitzak	3	% 100	3	50	% 100	50									
	Indarkeria matxista jasan dutenentzako zerbitzuak eta				1.900	% 100	1.900									
BAZTERKERIA	Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako egoitzetako edo eguneko zerbitzuetako prozesuak (Inklusio Programa)				720	% 100	720									
	Gazte Estrategiaren esparruan, egoitzetako edo eguneko zerbitzuetako prozesuak				300	% 100	300									
	GOF										300	% 100	300			
	GLB										10	% 100	10			
	GPELP										450	% 20	90			
TXOSTENA	Auditoretzen urteko plana													3.294.775,00 €	% 100	3.294.775,00 €
	Kudeaketari laguntzeko jarduketak													4.740.419,65 €	% 100	4.740.419,65 €
2024ko Ekintza Plana			Guztira	390		Guztira	5.226		Guztira	5.339		Guztira	56.007		Guztira	24.598.961,00 €

Deloitte.

Txosten/agiri hau, 2024ko apirileko kontratuan ezarritako baldintzen arabera prestatu da, eta barne hartzen ditu proposamena eta geroko eranskinak.

Deloittek ez du kontrolatzen helbide elektronikoaren funtzionamendua, fidagarritasuna, erabilgarritasuna edo segurtasuna, eta, beraz, ez da izango galeren, atzerapenen, hirugarren interzeptazioen, ustelkeriaren edo txosten/agiri horren edukiaren aldaketaren ondorioz gertatzen diren inolako galeraren edo kaltearen erantzule.

Txosten/agiri horren zirriborroa ez da oraindik jarri gure erakundeko ohiko barneko azterketa-prozeduren mende, eta, beraz, azterketa-prozesu horrek ekar litzakeen egokitzat jotzen dituen aldaketak, txertatzeak edo kentzeak egiteko eskubidea guretzat gordetzen dugu.

Txosten/agiri hau zorrozki konfidentziala da, eta Sozietateak barnean erabiltzen du. Ezingo da entregatu, ezta hirugarrenei sartzeko utzi edo horri buruzko aipamenik ere egin jakinarazpenetan, aldez aurretik idatziz baimenik ez badiogu eman.

Ez dugu gure gain hartzen erantzukizunik agiri honen edukian egin beharko litzatekeen eguneratzeetan, haren ondoren jazotzen diren inguruabarren edo gertaeren ondorioz.

Bezeroaren zuzendaritzari dagokio txostenean/agirian bilduta dauden ondorioetan praktikan jartzeko edo gauzatzeko erabaki guztiak hartzea eta haiek ebaluatzea”

Deloittek, Deloitte Touche Tohmatsu Limited erakundeari («DTTL») eta haren kideak diren erakundeen sareari eta lotutako erakundeei erreferentzia egiten du; bai bati, bai horietako batzuei. DTTL («Deloitte Global» ere esaten zaiona) eta haren erakunde kide bakoitza, juridikoki bereizita dauden eta independenteak diren erakundeak dira. DTTL ez die zerbitzurik eskaintzen bezeroei. Informazio gehiago eskuratzeko, sartu honako webgune honetan: www.deloitte.com/about.

Deloittek auditoretza, aholkularitza, lege-arlokoa, finantza-kontseilatzea, arriskuaren kudeaketa, zerga-ordainketa eta horiekin lotutako bestelako zerbitzuak egiten dizkie bezero publiko nahiz pribatuei, hainbat sektoretan. Eskala orokorrean elkarrekin lotuta dauden kideen sare batekin, 150 herrialde eta lurralde baino gehiagotan dago. Horrela, gaitasunik onenak eta kalitaterik oneneko zerbitzua eskaintzen dizkie Deloittek bezeroei. Erronka konplexuei aurre egiteko behar duten laguntza eskaintzen die. Deloitteren 312.000 profesionalak baino gehiagok benetako eragina izateko konpromisoa hartu dute beren gain.

© 2024 Deloitte Consulting, S.L.U